ZARAUZKO UDALA

BRAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE OBRAS
ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LANDA-BIDE, BARATZE, HERRI-INGURUKO PARKEETAKO BAZTERRAK ETA AREKAK SASIZ GARBITZEKO ETA TXUKUNTZEKO ZERBITZUA 2022IK200013		**SERVICIO DE DESBROCE Y LIMPIEZA DE LOS MARGENES DE LOS CAMINOS RURALES, HUERTAS, PARQUES PERIURBANOS Y CUNETAS DEL TERMINO MUNICIPAL DE ZARAUTZ** 2022IK200013
1. KONTRATUAREN XEDEA Kontratu honen xedea da Zarauzko udal bideetako eta herri-inguruko parkeetako bazterrak, ezpondak eta arekak sasiz garbitzea eta txukuntzea (1. eranskinean zehaztu dira). Erantsitako planoan adierazi da zein bidetan moztu behar den sasia; dena den, lanen luzeraren neurketa aldatu daiteke, bide batzuk kontratua baino lehen garbituta daudelako. Enpresa interesdunek, eskaintzak aurkeztu aurretik, biomasa-kopuruaren neurketak eta kalkuluak egin ditzakete bideetako eta espazio berdeetako bazterretan, udal teknikariek lagunduta. Kontratua egin ondoren bide eta parkeen egoeran gertatzen diren aldaketek ez dute aldaketarik ekarriko lizitazioaren prezioan.		**1. OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del presente contrato es el desbroce y la limpieza de márgenes, taludes y cunetas de los caminos municipales de Zarautz y de los parques periurbanos que se detallan en el Anexo 1. En el plano adjunto se indican los caminos a desbrozar, la medición de la longitud de los trabajos puede tener variaciones al estar algunos caminos desbrozados con anterioridad al contrato. Las empresas interesadas podrán realizar las mediciones y estimaciones de la cantidad de biomasa en márgenes de caminos y espacios verdes con anterioridad a la presentación de la oferta y acompañados de personal técnico municipal. Las variaciones del estado de caminos y parques posteriores a la formalización del contrato no supondrán ningún cambio en el precio de licitación.
2.- EGIN BEHARREKO LANAK Sasi-mozketa eta garbiketa-lanak urtean bitan egingo dira: udan eta udazkenean; hain zuzen ere, epe hauetan: – 1. sasi-mozketa: ekainaren 1etik uztailaren 31ra. – 2. sasi-mozketa: urriaren 1etik azaroaren 30era. Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren irizpidearen arabera, edozein unetan aldatu ahal izango dira sasi-mozketaren datak eta lan-aginduen lehentasunak.		**2.- LABORES A REALIZAR** El servicio de desbroce y limpieza se realizará dos veces al año: en verano y en otoño, y se deberá de ejecutar en su totalidad en los siguientes periodos: – 1º desbroce: del 1 de junio al 31 de julio – 2º desbroce: del 1 de octubre al 30 de noviembre Según criterio del departamento de Obras Públicas Infraestructuras y Servicios, las fechas de los desbroces y las prioridades en las órdenes de trabajo podrán ser modificadas en cualquier momento.

Atzeratu edo aurreratu ere ahal izango dira, pilatutako biomasaren eta egoera hidrologikoaren arabera.		También podrán atrasarse o adelantarse según la biomasa acumulada y la situación hidrológica.
Oro har, bide bazterrak eta arekak soiltzeko, sasiz garbitzeko eta txukuntzeko egin behar diren lan guztiak sartuko dira; eta, zehazki, honako hauek:		Las labores incluirán todas aquellas operaciones necesarias para el despeje, desbroce y limpieza de márgenes y cunetas en caminos y consisten fundamentalmente en:
2.1. Ezpondetako sasi-mozketa		2.1 Desbroce de taludes
Bide bazterretan eta ezpondetan sastraka, zuhaixkak, belarra, etab. kentzea, bitarteko mekanikoekin (sasia kentzeko traktorea) edo eskuz.		Consiste en la limpieza de maleza, arbustos, hierbas, etc. en los márgenes y taludes de los caminos, bien por medios mecánicos (tractor-desbrozador) o manuales.
Ezponda handien kasuan, makinaren besoak harrapatzen duen altueran egingo da mozketa (gutxienez 3,50 m). Mozketa eskuz egiten bada, 2,50 metrokoa izango da gehienezko altuera.		La altura del desbroce a realizar será como mínimo, en el caso de grandes taludes, la que alcance el brazo de la máquina, con un mínimo de 3,50 m. En el caso de desbroce manual, la altura máxima a considerar será de 2,50 metros.
Mozketatik jasotako materiala bildu egin beharko da, eta baimendutako zabortegi batera edo hondakinak kudeatzeko instalazio batera garraituko da.		Los materiales procedentes del desbroce deberán ser cargados y transportados a vertedero autorizado o planta de gestión de residuos.
2.2 Lursailetako sasi-mozketa eta garbitzea		2.2 Desbroce y limpieza de terrenos
Izaera publikoko lursailetan sastraka, belarra, etab. moztea eta garbitzea, bitarteko mekanikoen bidez edo eskuz; eta produktuak zamatzea eta baimendutako zabortegi batera edo hondakinak kudeatzeko instalazio batera garraiatzea.		Consiste en el despeje, desbroce y limpieza de maleza, hierbas, etc. en terrenos de carácter público, bien por medios mecánicos o manuales, comprendiendo esta operación la carga y transporte de productos a vertedero autorizado o planta de gestión de residuos.
2.3 Bide bazterrak eta arekak garbitzea.		2.3 Limpieza de márgenes y cunetas de caminos.
Udal bideetako plataformaren ertzetatik lurra, sasiak, zuhaixkak, belarrak eta abar ateratzeko lanak egingo dira bide bazterren garbiketan.		La limpieza de los márgenes del camino consiste en la extracción de la tierra, maleza, arbustos, hierbas, etc. de los bordes de la plataforma en los caminos municipales.
Gainera, arekak garbitu eta/edo egokitu ere egingo dira lan horietan: bertan pilatutako materialak atera, hormak eta hondoa garbitu —ura ondo ebakuatzeko—, eta ezpondaren oineko belar txarrak eskuz kendu.		Estos trabajos incluyen la limpieza y/o adecuación de las cunetas extrayendo los materiales que se depositen en las mismas, rasanteando las paredes y fondo para conseguir una buena evacuación del agua, así como el desbroce manual del pie de talud.
Garbiketa hori mekanikoki edo eskuz egin daiteke; bi kasuetan, ateratako produktuak zamatu eta garraiatu egin beharko dira.		La limpieza podrá hacerse de forma mecánica o manual, procediéndose en ambos casos a la carga y transporte de los productos extraídos.

ZARAUZKO UDALA

Lan horietan sartuta egongo da, baita ere, estolda-zuloetatik, saretetatik, kanaletatik eta horien hustubideetatik lurra, harriak, sasia, etab. ateratzea.		En estas operaciones se entiende incluido el vaciado de tierras, piedras, maleza, etc. de pozos sumideros, rejillas, canaletas, etc., así como de sus desagües.
Debekatuta dago sasi-mozketatik ateratako hondakinak pilatzea eta jendeari eragozpenak sortzea edo arekak eta ur-bideak trabatzea.		No está permitido apilar los residuos procedentes del desbroce, que puedan originarmolestias a particulares u obstrucciones en las cunetas y pasos de agua.
Aurreko lan horietan guztietan sartuta egongo da hondakinak zabortegi baimendura eramatea, beharrezkoa denean. Jarduera bakoitzaren bukaeran, garraio hori justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da Udalean, bai eta gainerako dokumentazioa ere.		Todas las actuaciones anteriormente citadas contarán, cuando sea necesario, con el traslado a vertedero autorizado de los materiales de desecho, entregando la documentación justificativa de ello al Ayuntamiento, junto con el resto de documentación requerida a la finalización de cada actuación.
Bizilagunek segatutako eta garbitutako areka eta bazterrak topatzen badira ere, horrek ez du adjudikazioaren prezioa jaitsiko.		La aparición de tramos de cunetas y márgenes segados y limpiados por los vecinos no supondrá la disminución del precio de la adjudicación.
Enpresak, gainera, moztu egin beharko ditu zuhaitzen beheko adarrak, kamioien pasabidea oztopatzen duten lekuetan.		La empresa está obligada a realizar el refaldado de arbolado en los tramos que pueda obstaculizar el paso de camiones.
Kamioien joan-etorria ohikoa den errepide guztietan bermatu beharko da ez dagoela pasabidea oztopatuko duen adar, enbor edo bestelakorik. Pasabide horrek hiru metroko zabalera eta lau metroko altuera edukiko du.		En todos los caminos donde el tráfico de camiones sea habitual, deberá asegurarse un paso libre de ramas, troncos o cualquier posible obstáculo. Este paso libre tendrá una anchura de tres metros y una altura de cuatro metros.
Herrilan Departamentuak edozein unetan eskatu ahal izango du bideak altueran garbitzea, baldin eta bide hori ibilgailuen joan-etorrirako erabiltzen bada. Oinezkoek bakarrik erabiltzen dituzten bide, pista eta bidezidorretan, garbiketaren altuera ez da inoiz bi metro eta erditik beherakoa izango.		En todo momento el departamento de Herrilan podrá exigir la limpieza en altura de caminos siempre y cuando el mismo sea utilizado para el tráfico rodado. En el caso de caminos, pistas y senderos exclusivos de peatones la altura de los trabajos de limpieza nunca será inferior a dos metros y medio.
Kontratazio honetako lanen xede diren bideak eta berdeguneak 1. eranskinean jasota daude.		Los caminos y zonas verdes objeto de las labores a realizar por esta contratación están recogidos en el anexo nº1.
Ondoren zerrendatutako berdeguneen azalera osoa garbituko da sasiz:		Las zonas verdes enumeradas a continuación serán desbrozadas en la totalidad de su superficie:
Itulazabaleko ezponda San Martin ermita Mollarriko zamalekua Udal baratzeak: sarbide eta pasabide guztiak		Talud de Itulazabal. Hermita de San Martín. Cargadero de Mollarri

Vista Alegre parkea: oihanpe guztia, udal zerbitzuek zehaztutako babes-guneak errespetatuta Mutxio parkea Urtetako parkea eta frontoia Zingira ingurua Hiruerreketako aparkalekuak		Huertas municipales: todas las vías y pasillos de acceso. Parque de Vista alegre: todo el soto bosque respetando las zonas protegidas que especificarán los servicios municipales. Mutxio Parkea Parque y frontón de Urteta. Zingira ingurua. Hiruerreketako aparkalekuak
Ondoren adierazitako arekak lehentasunez garbitu beharko dira: Rezabal bidearen eskuin aldea Urteta frontoitik Etxeberri arteko ezker aldea Talaimendi bideko eskuin aldea Urdaneta bidearen eskuin eta ezker aldea, Bentasetik Argoinera eta zabortegitik Oiarteraino. Zubiondotik kanpinera arteko eskuin aldea Bustinzuritik autopista arteko eskuin aldea.		Las cunetas enumeradas a continuación deberán ser limpiadas prioritariamente: Margen derecha Rezabal bidea. Margen izquierda desde frontón Urteta hasta Etxeberri. Margen derecha Talaimendi Bidea. Magen derecha e izquierda de Urdaneta bidea desde Bentas hasta Argoin y desde zabortegi hasta Oiarte. Margen derecho desde Zubiondo hasta camping. Margen derecho desde Bustinzuri hasta autopista
3.- LANAK GAUZATZEA		**3.- EJECUCION DE LOS TRABAJOS**
2. atalean adierazitako eragiketekin nolako lanak egin behar diren identifikatu da, kontrol eta ordainketa ondorioetarako, baina horixe besterik ez dute adierazten; hau da, enpresa adjudikaziodunak bere kontura egin beharko ditu obrak ondo egiteko eragiketa guztiak, osagarriak edo ez.		Las operaciones a realizar que se indican en el apartado 2 tienen por objeto identificar la clase de trabajo a realizar, a efectos de control y pago, pero tienen solamente carácter indicativo, es decir, que la empresa adjudicataria tendrá que realizar a su costa todas las operaciones, auxiliares o no, que sean necesarias para que las obras queden perfectamente realizadas.
Udalak uste badu lanak ez direla kalitate onarekin egin, berriz egin beharko dira, beharrezkoa denean.		La realización de los trabajos de calidad inadecuada, a juicio del Ayuntamiento, implicará la nueva realización cuando fuera necesario.
Hori betetzen ez bada, lan horri dagokion zenbatekoa kendu egingo da ziurtagiriaren kopurutik.		En caso de incumplimiento la cuantía correspondiente a dicho trabajo será deducida del importe de la certificación.
Izendatutako udal teknikariek onartu egin beharko dute jardueren egutegia, zeina aldatu ahal izango den bide jakin batzuk beste batzuen aurretik lehenesteko. Gainera, enpresa adjudikaziodunak udal teknikariei jakinarazi egin beharko die lanak nola doazen, egiten ari diren bitartean.		El personal técnico municipal designado deberá aprobar el calendario de actuaciones, que podrá ser modificado priorizando determinados caminos sobre otros. Así mismo, la empresa adjudicataria deberá de informar a los técnicos municipales del estado de los trabajos cuando estos se estén realizando.

Mozketetako hondakinak ez badira jasotzen bidetik, enpresa adjudikaziodunak derrigorrez jaso beharko ditu abisatzen zaion unetik. Debekatuta dago mozketaren hondakinak egun bat baino gehiago bideetan pilatzea. Hori betetzen ez bada, lan horri dagokion zenbatekoa kendu egingo da ziurtagiriaren kopurutik.		En caso de que los residuos de desbroce no sean eliminados del camino, la empresa adjudicataria estará obligada a su retirada desde el mismo momento en que sea avisada. La acumulación de residuos y restos de desbroce en los caminos, durante más de un día está prohibida. En caso de incumplimiento la cuantía correspondiente a dicho trabajo será deducida del importe de la certificación.
4.- SEINALEAK ETA BABESA Enpresa adjudikaziodunak seinaleztatu egingo ditu lan-guneak, Zirkulazio Kodeak, 8.3 IC instrukzioak eta udal ordenantzek agindutako moduan; bera izango da hori ez betetzearen arduradun bakarra.		**4.- SEÑALIZACION Y PROTECCION** La empresa adjudicataria deberá señalizar las zonas de trabajo en la forma que exija el Código de Circulación, la Instrucción 8.3 IC y las Ordenanzas Municipales, siendo el único responsable de su incumplimiento.
5.- MATERIALA ETA MAKINAK EDUKITZEA Adjudikaziodunak une oro eskura edukiko du zerbitzuak betetzeko behar duen materiala eta makinak; beraz, egoki iruditzen zaizkion erreserba-ekipoak edukiko ditu.		**5.- DISPONIBILIDAD DE MATERIAL Y MAQUINARIA** La empresa adjudicataria deberá tener constantemente a disposición el material y maquinaria necesario para prestar los servicios, por lo que deberá contar con los equipos de reserva que considere convenientes.
6.- LANGILEAK Adjudikaziodunak zerbitzua ondo betetzeko behar dituen langile guztiak edukiko ditu. Enpresa adjudikazioduneko langileak ez du, inondik ere, laneko, kontratuzko, funtzionariotzako edo bestelako harremanik izango Zarauzko Udalarekin. Zerbitzuko langileak argi eta garbi identifikatuta egongo dira, enpresaren izena arropetan jarrita. Bide publikoekin mugakide diren lurren jabeekin gatazkarik sortzen bada, kontratistaren langileen arduradunak gatazka horren berri eman beharko die udal zerbitzuei.		**6.- PERSONAL** La empresa adjudicataria dispondrá del personal necesario para la buena ejecución del servicio. El personal de la empresa adjudicataria en ningún supuesto tendrá relación laboral, contractual, funcionarial o de cualquier otra naturaleza con el Ayuntamiento de Zarautz. Todo el personal encargado del servicio deberá ir claramente identificado mediante el nombre de la empresa en su vestuario. En caso de conflicto con la Propiedad de terrenos que linden con caminos públicos, el personal a cargo de la empresa adjudicataria deberá informar a los servicios municipales de dicho conflicto.

7.- JARDUERA BAKOITZAREN ONDOREN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA Enpresa adjudikaziodunak bide bakoitzeko jardueraren jarraipeneko dokumentazioa aurkeztu beharko du digitalki. Jarraipen-dokumentazio hori plantilla moduko fitxa bat izango da (Udalarekin adostutakoa). Fitxa horiek urtean bitan aurkeztuko dira Udalean, jarduerekin bat eginez, gehienez ere lanak bukatu eta hilabetera. Bestalde, jarduera bakoitza bukatutakoan, hondakinak zabortegi baimendu batera eraman direla justifikatzeko dokumentazioa entregatuko da.	**7.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR A LA FINALIZACIÓN DE CADA ACTUACIÓN** La empresa adjudicataria deberá aportar digitalmente una documentación de seguimiento por actuación de cada uno de los caminos. Esta documentación de seguimiento estará compuesta de una ficha a modo de plantilla, a acordar con el Ayuntamiento. Estas fichas se deberán aportar al Ayuntamiento dos veces al año, coincidiendo con las actuaciones, como máximo al mes de la finalización de los trabajos. Por otro lado, al término de cada actuación se deberá entregar la documentación justificativa del traslado a vertedero autorizado de los materiales de desecho.
8.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK Zerbitzua betetzeko, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartu du ondorengo betebeharrak garatzeko eta betetzeko: 1. Hirugarrenei eragindako kalteak konpontzea. 2. Bide segurtasuneko eta laneko arriskuen prebentzioko araudia betetzeko aplikatu behar diren lege-bitarteko guztiak hartzea. 3. Sasi-mozketatik ateratako hondakinak behar bezala ezabatzea, jendeari eragozpenik sortu gabe edo arekak eta ur-bideak trabatu gabe. 4. Zerbitzua zuzenean ematea, pleguetan eskatutako eta eskaintzan aurkeztutako baldintzetan. 5. Betebehar fiskalak, lanekoak eta segurtasunekoak betetzen direla ziurtatu eta justifikatzea, bere kontura. 6. Lanerako behar den arropa edukitzea, eta langileei hornitzea, laneko segurtasun eta higienearen araudiaren arabera. 7. Bere kargura dituen langile guztiak aseguratzea, laneko zuzenbidean eta gizarte segurantzan indarrean dagoen legeriaren arabera.	**8.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA** Para la prestación del servicio, la empresa adjudicataria asume el compromiso de desarrollar y dar cumplimiento a las siguientes obligaciones: 1. Reparar los daños causados a terceros. 2. Adoptar cuantas medias legales sean de aplicación en cumplimiento de la normativa de seguridad vial y prevención de riesgos laborales. 3. Adoptar la debida diligencia en la eliminación de los residuos procedentes del desbroce, que no podrán originar molestias a particulares u obstrucciones en las cunetas y pasos de agua. 4. Ejercer la prestación directa del servicio conforme a las prescripciones exigidas en el pliego y en la oferta presentada. 5. Acreditar y justificar el cumplimiento de las obligaciones fiscales, laborales y de seguridad, por su cuenta y riesgo. 6. Disponer y suministrar al personal el vestuario necesario para el desempeño de sus funciones, conforme a la normativa de seguridad e higiene en el trabajo. 7. Asegurar a todo el personal a su cargo, conforme a la legislación vigente en materia del derecho del trabajo y seguridad social.